



## K bulegoa

*saio irekia*

**Nola egin *aurreikuspen egokiak* gure proiektu  
artistiko eta kulturalak bideragarriak izan daitezen?**

2022ko martxoaren 7a

*sesión abierta*

**¿Cómo hacer *previsiones adecuadas* para que  
nuestros proyectos artísticos y culturales sean viables?**

7 de marzo de 2023

Saio irekia.

## Nola egin **aurreikuspen egokiak**

### **gure proiektu artistiko eta kulturalak bideragarriak izan daitezen?**

Saioari hasiera emateko, aurkezpen itzuli bat egin genuen, elkar ezagutzeko asmoz. 7 kulturgile elkartu ginen, antzerkia, diseinua, musika eta interiorismo alorretakoak. Gaiari sarrera emateko, K bulegoan maiz topatu izan ditugun zailtasunen eta lanketa interesgarrien zerrenda bat partekatu genuen. Honako hau izan zen saioaren mamia: nola egin aurreikuspenak jarduera sendoak lantzeko, kontuan hartuz gure garapen positiboa ere zaindu behar dugula.

Horrela, tarte bat hartu genuen guk zerrendako arazo eta lanketa zehatzak aletzeko. Honako ideiak hauek generamatzen altzoan:

Aurreikuspenak zentzu zabalean ulertuta edo zehatzago esanda aurreaurreikuspenak egitea oso gomendagarria da. Lanketetan murgildu aurretik, proiektua garatzean gerta daitezke edo litezkeen xehetasunetan arretan jartzea da, hori guztia ikusaraztea praktika erabat baliogarria da. Honako alderdi hauek aldeztu aurretik ekartzea: zer egingo dugu, nola eta noiz gertatuko da; zer ezusteko gertatu daiteke; zein aukera izan dezakegu; bat-batekotasunera prestatu; denbora tarte egokiak eskaini lanketei, kontzientziaz; ideia edo proiektua garatzeko zer izango den aberasgarri, baldintzetan pentsatuz; gure ikaskuntza prozesuan zehar ere aberasgarria izan dadin, gure prozesuan egoteko modu egokienetan pentsatuz.

Kontzeptu egokiak erabiltzeak badu bere garrantzia. Sarritan ez ditugu ekintzak hitz egokiz janzten. Dimentsio egokian. Konplexutasun eta denbora tarte zabalak behar dituzten ekintzak, bere horretan aurreikustean, balioa ere hortik ematea garrantzitsua da. Sarritan hitz desegokiak erabiltzen ditugu, eta horrek gaizki-ulertuak eta okerrak sortzen ditu, lanketan nahastu egiten ditu edo ez ditu beharrezkoak diren baldintza eta baliabideak jasotzen.

Zein garrantzitsua den egin beharrekoaren dimentsio egokia behin ikusarazten dugunean, guk geuk horretan sinestea. Uste sendoetara (konbikziora) eramatea eta ingurukoekin komunikatzea. Zalantzetan erortzeak lanaren nortasuna ezkututzen baitu, ez dugu lortzen argi adieraztea egin beharrekoaren benetako dimentsioa, eta zalantzok frustrazioen iturri dira. Neurri eta espazio zein baldintza desegokiak. Bat ez datozenak.

Mugak jarri eta mugak zaindu, eta hori egoki kudeatu. Behin gure lanketarako modu egokia zein den definitzen dugunean, ondoren, berau zaintzea dator. Horrexegatik, mugak definitu behar ditugu ohartzeko zein puntutik aurrera ideia desitxuratzen hasten den, hau da, esentzia galtzen hasten garenean edo gehiegizko lanketan erortzen, iparra galtzen dugu eta noraezean hasi.

Prekariatateak eta kulturgintzaren balioa gutxietsia egoteak ideia eta jarduerak garatzea zailtzen dutenez, prozesu osoa sormenez kudeatzea oso garrantzitsua da. Guk geuk bilatu behar ditugu etengabe, gure hobe beharrez, modu eta baldintza lagungarriak ideia egoki garatzeko. Sormena da momentuan erantzun bereziak ematera garamatzana.

Hausnarketa horiek guztiak partekatu ondoren solasaldi gogotsua piztu zen. Hemen elkarrizketan atera ziren beharren zerrenda.

-Kolaborazio sareen garrantzia, eta sare hauek eskura eta ikusgarri egotearen beharra.

-Gure lanketak denboran atzeratu egiten dira, sarritan ez ditugulako gure ekimenetarako egokiak diren baldintzak eta baliabideak. Oso lagungarria litzateke plataforma egituratu bat izatea, bertan pertsonak saretu eta baliabide zein ezagutzak partekatzea erraz gertatzeko, aukera berriak sortzeko.

-Zaila izaten da ekimen bereziak esperimentatu eta probak egiteko espazio egokiak topatzea. Batzuetan, dimentsio handiko espazioak behar ditugu. Oso lagungarria litzateke baldintza bereziko azpiegiturak sortzea eta izaera publikokoak izatea, edo behintzat egun daudenak identifikatzea eta haien erabilera erraztea.

-Finantzaketari begira, aukera anitz bilatzea oso garrantzitsua da: publikoak, pribatuak, etikoak, neurrira sortutakoak, autofinantzaketa, bestelako eredu jasangarriak..., azken batean finantzabideak ugaltzea.

-Lan desberdinen balioa definitzen duten ereduak sortzea ere garrantzizkotzat jo zen.

**K**  
**BUL**  
**EGO**  
**A**



**Kulturari adi /  
Atención a la cultura**

943 11 33 43 · kbulegoa@gipuzkoa.eus

Santa Teresa komentua  
Elbiria Zipitria 1  
20003 Donostia  
Gipuzkoa

Sesión abierta.

**¿Cómo hacer previsiones adecuadas  
para que nuestros proyectos artísticos y culturales sean viables?**

Comenzamos la sesión con una presentación para conocernos. Nos reunimos 7 kulturgiles del mundo del teatro, diseño, música e interiorismo. Para introducir el tema, compartimos una lista de dificultades y trabajos relevantes que hemos elaborado en K bulegoa. La sesión se centró en cómo hacer previsiones para desarrollar actuaciones consistentes, teniendo en cuenta que también debemos cuidar un desarrollo positivo de nosotras mismas.

Así, dedicamos un tiempo para desgranar las dificultades y los trabajos concretos de la lista. Estas son las ideas que nos inspiran:

Es muy recomendable hacer previsiones, entendidas en un sentido amplio, o más concretamente las “preprevisiones”. Antes de meterse de lleno en las gestiones, conviene poner el acento en todos los posibles detalles que pueden producirse durante el desarrollo de un proyecto, hacer visible todo eso es una práctica muy necesaria. Traer de antemano qué vamos a hacer, cómo y cuándo; qué imprevistos pueden suceder; qué oportunidades podemos encontrar; prepararnos para actuar con espontaneidad; dedicar tiempos adecuados a los trabajos, con conciencia; pensar qué va a ser más enriquecedor para desarrollar la idea o proyecto, pensando en las condiciones, para que nuestro aprendizaje sea enriquecedor también a lo largo de nuestro proceso, pensando en las formas más adecuadas para su desarrollo.

Utilizar los conceptos adecuados tiene su importancia. A menudo no damos con las palabras adecuadas para hablar de las acciones. Hay que buscar la dimensión adecuada. Es importante que las acciones que requieren amplios márgenes de complejidad y tiempo, al preverse como tales, aporten valor también desde ahí. Frecuentemente utilizamos palabras inadecuadas, que provocan entendidos y errores, confunden en la elaboración del proyecto, o no recogen de manera fiel las condiciones y recursos necesarios.

Es importante creer en la dimensión adecuada de lo que hay que hacer una vez que lo vemos. Tener convicciones fuertes y comunicarse con las demás. Porque caer en dudas resta identidad al trabajo, no conseguimos expresar con claridad la verdadera dimensión de lo que hay que hacer, y estas dudas son fuente de frustraciones. A veces nos encontramos con dimensiones, espacios y condiciones inadecuadas. Elementos discordantes.

Establecer límites, cuidarlos y gestionarlos adecuadamente. Una vez que definimos cuál es la forma adecuada para realizar nuestro trabajo, luego viene el cuidado del mismo. Por eso tenemos que definir límites para poder ver en qué punto la idea empieza a distorsionarse, es decir, cuando empezamos a perder la esencia del proyecto o a caer en un trabajo excesivo, perdemos el norte y viramos en una dirección no adecuada.

Puesto que la precariedad y la apreciación del valor de la cultura dificultan el desarrollo de las ideas y actividades, la gestión creativa de todo el proceso es muy importante. Nosotras mismas tenemos que buscar continuamente en favor de nuestro bienestar, dar con las formas y condiciones que nos ayuden a desarrollar la idea. La creatividad es lo que nos lleva a dar respuestas especiales en el momento.

Tras compartir todas estas reflexiones surgió un intenso coloquio. Esta lista de necesidades salieron durante el diálogo abierto.

-La importancia de las redes de colaboración y la necesidad de que éstas estén disponibles y visibles.

-Nuestros trabajos se retrasan en el tiempo porque a menudo no contamos con las condiciones y recursos adecuados para nuestras iniciativas. Sería de gran ayuda disponer de una plataforma estructurada en la que las personas puedan integrarse y compartir recursos y conocimientos de forma sencilla para crear nuevas oportunidades.

-Es difícil encontrar espacios adecuados para experimentar y ensayar iniciativas singulares. A veces necesitamos espacios de grandes dimensiones. Sería de gran ayuda crear infraestructuras con condiciones especiales y que sean de carácter público, o al menos identificar las existentes y facilitar su uso.

-La búsqueda de vías de financiación alternativa es muy importante: públicas, privadas, éticas, creadas a medida, autofinanciación, otros modelos sostenibles..., en definitiva, diversificar las fuentes de financiación.

-También se consideró importante crear modelos que definan el valor de las diferentes obras.

**K**  
**BUL**  
**EGO**  
**A**



**Kulturari adi /  
Atención a la cultura**

943 11 33 43 · kbulegoa@gipuzkoa.eus

Santa Teresa komentua  
Elbiria Zipitria 1  
20003 Donostia  
Gipuzkoa

# MANIFESTUA

"Nola egin aurreikuspen egokiak gure proiektu artistiko eta kulturalak bideragarriak izan daitezten?" izeneko saio irekian ondutako manifestua. 2023ko martxoaren 7an Beasaingo Igartza Jauregian bildu ginen.

## Aurreikuspen egokiak egiteko garrantzitsua da...

Egiten duzunak balioa duela sinestea,  
indarra jartzea,  
arbela,  
gauzak argi edukitzea,  
kronograma,  
behin eta berriro gelditzea,  
ikerketa,  
argia ematea ikerketari,  
pentsatzea eta sentitzea,  
babestea eta  
babeskideak,  
bozgoragailua,  
proiektoreak,  
ezagutzera ematea,  
laguntza eskatzea,  
ideia berriak entzutea,  
bidelagunak, gogoia, ohea,  
ospatzea,  
esentzia ez galtzea eta dirua irabaztea,  
argia,  
komunitatea,  
nortasuna,  
espazio aproposa  
iparrorratza,  
ideiak, dirua,  
lotsak etxean uztea  
adorea,  
lotsak auzoan,  
excel borobilak, mugimendua eta norabidea,  
abiapuntua,  
betikoa eraldatzea,  
saiatzea, eta berriro saiitzea,  
erreferentzia garbiak eta erreferentzia propioak  
definizio onak.

# MANIFIESTO

Manifiesto creado en la sesión abierta "¿Cómo hacer previsiones adecuadas para que nuestros proyectos artísticos y culturales sean viables?", celebrada el 7 de marzo de 2023 en el palacio de Igartza de

## Para hacer las previsiones adecuadas es importante...

Crear que lo que haces tiene valor,  
poner fuerza,  
pizarra,  
tener las cosas claras,  
cronograma,  
parar, una y otra vez,  
investigación,  
dar luz a la investigación,  
pensar y sentir,  
protección y  
protectoras,  
altavoz,  
proyectores,  
difusión,  
solicitar ayuda,  
escuchar nuevas ideas,  
compañeras de viaje, ganas, cama,  
celebración,  
no perder la esencia y ganar dinero,  
luz,  
la comunidad,  
personalidad,  
espacio  
brújula,  
ideas, dinero,  
dejar las vergüenzas en casa  
ánimo,  
vergüenzas "en el barrio",  
excel redondos, movimiento y dirección,  
punto de partida,  
transformación de lo tradicional,  
intentarlo, y volver a hacerlo,  
referencias claras y referencias propias  
definir bien.

